

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila**

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren 1202/2021 FORU AGINDUA, martxoaren 15ekoa, zeinaren bidez eguneratzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenekuen erabilera arautzen duen abenduaren 26ko 174/2017 Foru Dekretuaren eranskineko katalogoan jasotako atsedenekuak.

174/2017 Foru Dekretuaren 3.4 artikuluan araututakoaren arabera, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru-agindu baten bidez sartu ahal izango dira atsedeneku gehiago katalogoan, eta edozein arrazoirerengatik izaera hori galtzen dutenak kendu.

Era berean, Foru Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian, Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenekuen katalogoa eguneratuta edukitzeko eta argitaratzeko agintzen zaio Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailari.

Kontuan harturik gai honen gainean zer-nolako eginkizunak esleitu dizkidan bere 39 eta 64. artikuluetan otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzkoak, eta horrekin lotuta 7.B) 3 artikuluan xedatzen duena azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzkoak,

XEDATZEN DUT:**Lehen artikulua**

Egunera bitez Bizkaiko Foru Aldundiaren atsedenekuen erabilera arautzen duen abenduaren 26ko 174/2017 Foru Dekretuaren eranskineko katalogoan jasotako atsedenekuak (eranskinaren arabera).

Bigarren artikulua

Argitara bedi atsedenekuen katalogoaren eguneraketa Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean.

AZKEN XEDAPENAK**Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea**

Foru Agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2021eko martxoaren 15ean.

Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala
Zaintzeko foru diputatua,
ELENA UNZUETA TORRE

**ERANSKINA**

| Udalerría | Atsedenukuak |
|-------------------|--|
| ABADIÑO | Aldazitala |
| ABANTO ZIERBENA | El Cerrillo |
| ABANTO ZIERBENA | Siete Robles (Campa El Chingao) |
| ALONSOTEGI | Pagasarriko elur-zuloak - Tarin iturria |
| AMOREBIETA-ETXANO | Belatxikieta |
| AMOREBIETA-ETXANO | Dudagoitia |
| AREATZA | Asteitxe |
| AREATZA | Larreder |
| AREATZA | Pagomakurre |
| AREATZA | Upo Makatza |
| ARRIGORRIAGA | Ollargan-Montefuerte |
| ARTZENTALES | La Toba |
| AULESTI | Santa Eufemia-Igotz |
| BAKIO | Jata |
| BAKIO | Goitisolalde (Larrondo) |
| BALMASEDA | El Cueto |
| BALMASEDA | Kolitz |
| BALMASEDA | La Porqueriza |
| BALMASEDA | Las Laceras |
| BARAKALDO | Argalario |
| BARRIKA | Barrika |
| BERMEO | Lurgorri |
| BERRIZ | Oiz |
| BUSTURIA | San Antonio hondartzako laguntzako atsedenukua |
| BUSTURIA | Santarena |
| DIMA | San Miguel txiki |
| DIMA | Zumeltza |
| DIMA | Zumeltza haizulo |
| DURANGO | Bidezelai |
| DURANGO | Landederra |
| DURANGO | Larrinagatxu |
| DURANGO | Neberondo |
| DURANGO | Sanrokeburu |
| ERANDIO | Akarlanda |
| ETXEBARRI | Kortatxueta |
| GALDAKAO | Aranzelai |
| GALDAKAO | El Viveroko igoera |
| GALDAMES | Atxuriaga |
| GARAI | Lasiar |
| GETXO | Bateriak |
| GORLIZ | Gorlizko pinudia |
| GÜEÑES | Eretza |
| IGORRE | Larragan |
| ISPASTER | Ogella |



| Udalerría | Atsedenukuak |
|------------------|---|
| ISPASTER | Otoio |
| ISPASTER | Talaia |
| KARRANTZA HARANA | Pozalagua |
| LEIOA | Artaza |
| LEMOA | San Antolin |
| LEZAMA | Elorritxueta |
| MENDEXA | Karraspio |
| MUSKIZ | La Arena hondartzako laguntzako atsedenukua |
| MUSKIZ | Rebortun |
| OROZKO | Altagorta |
| OROZKO | Belaustegi |
| OROZKO | Santa Marina |
| OTXANDIO | Presazelai |
| SANTURTZI | Serantes |
| SOPUERTA | La Balugako baltsak |
| SUKARRIETA | Txatxarramendi uhartea |
| SUKARRIETA | Padurako parkea –Toña |
| TRUCIOS-TURTZIOZ | Aguanaz |
| TRUCIOS-TURTZIOZ | Basinagre (Agüera ibaia) |
| TRUCIOS-TURTZIOZ | El Calero |
| TRUCIOS-TURTZIOZ | Gordon (La Trinidad) |
| TRUCIOS-TURTZIOZ | San Roke |
| URDUÑA-ORDUÑA | La Choza iturria |
| URDUÑA-ORDUÑA | La Teta iturria |
| URDUÑA-ORDUÑA | La Muera |
| URDUÑA-ORDUÑA | La Chozako pinudia |
| TRAPAGARAN | Zugaztieta |
| ZALLA | Bolunburu |
| ZALLA | La Brena |
| ZEANURI | Saldropo |
| ZEBERIO | Upoko Pagadia |